

OHAR OROKORRAK

OHAR BILDUMAK

Gogorazten dizuegu, **ostiralero Ohar Bilduma bidaltzen dugula. Ohar bilduma hauek eskuragarri izango dituzue beti ALEXIAko plataforman.** Horretarako, zuen ordenagailu edo Sakeleko Telefonotik, Alexia-ko app-ra sartu behar duzue. Informazio hau mezu elektronikoko bidez bidaltzeari uzteko aurreikuspena dugu 2022ko martxoaren 25etik aurrera. Aldi berean eskuragarri izango dituzue, ikastolako web orrian, “Informazio-oharrak” atalean.

Alexiaren erabileraren inguruko gidak zintzilikatuta ditugu Ikastolako web orrian zuen eskura. Bertan aurkitu ahalko dituzue, Alexia eta “Alexia familia” mugikorrerako app-aren erabileraren inguruko gidak. Ikus honako [ESTEKA](#).

DBH4KO IKASLEEN IKASBIDAIRAKO AZOKA

Jakingo duzuen bezala, DBH 4ko ikasleok aurten ikas bidaira joateko asmoa dugu, eta jada saldu ditugu bonboiak eta arropa, diru pixka bat lortzeko. Hala ere, azkeneko ekintzatxoa antolatu nahi dugu falta zaigun dirua lortzeko. Beraz, ostiral honetan, ikastola aurreko eskulturan, bertsolari plazan, azoka bat antolatzea pentsatu dugu eta jertse, poltsa, txapa eta postre gozo-gozoak erosteko aukera izango duzue 16:30etatik aurrera.

Hemen itzarongo zaituztegu, **ANIMATU!!**

Ikus, ikasleek diseinatutako kartel ederra honako [ESTEKAN](#).



PAGOETA MENDI LASTERKETA

Salbatore Mitxelena Ikastolako guraso-taldeak **Pagoeta Mendi Lasterketa** antolatzeari ekin dio, berriro ere, bi urte eta gero. Aurtengoa apirilaren 24an izango da.

Ekitaldi hau behar bezala antolatu ahal izateko, **boluntario-talde handia beharko dugu**, eta horregatik zuen laguntza eskatzera gatoz. Batez ere lasterketa egunean izango dugu beharra: kiroldegi inguruko muntaia eta desmuntaia lanak, ibilbideetako bidegurutzeak zaindu, anoa-guneak prestatu, hamaiketako zerbitzatu, etab. Horiek guztiak egiteko, **Ikastolako guraso eta langileen laguntza** ongi-etorria eta ezinbestekoa izango da.

Informazio gehiago nahi baduzue, hemen mugikor zenbakia eta emaila:

Iñigo Garcia – 699 775 242

pagoetamendilasterketa@gmail.com

Gainera, **Facebooken** ere aurkituko gaituzue, [Pagoeta Mendi Lasterketa](#)” izenarekin.

[IKUS KARTELA](#)

KILOMETROAK 2022: DENDA IBILTARIA

Jakingo duzue, aurten Ibarako Uzturpe Ikastola dabil **“Irribarra”** lelopean osatuko den Kilometroak-en antolaketan.

Gure ikastolan Kilometroak ospatu genuenetik zenbait aldaketa eman dira eta horietako bat arropa salmentari dagokiona da: udalerrri bakoitzean bertako Ikastolari arropa salmenta antolatu eta sustatzeko eskaera luzatu zaigu. Hori dela eta, Zarauzko Ikastolatik urtean zehar arropa salmentako denda ibiltaria hainbat egunen seinalatuetan jartzea aurreikusten dugu.

Aste Santuan Zarautzera hurbiltzen den jende kopurua handia dela eta, **Apirilaren 16an, larunbata Malekoian KMK denda ibiltaria** jartzea pentsatu dugu, baina honetarako bertan egoteko prest gauden “saltzaileak” behar ditugu. Goiz eta arratsalde jartzea aurreikusten badugu ere, ordutegia eta txanden iraupena prest gauden irakasle eta guraso kopuruaren arabera antolatuko dugu.

Egun horretan denda ibiltarian egoteko prest bazaude, bete ondorengo galdetegia eta zurekin kontaktuan jarriko gara txandak antolatzeko:

[GALDETEGIA](#)

Mila esker zuen parte hartzeagatik eta egin dezagun **“Irribarra”!!**



COVID GALDETEGIA

Ikastolak, COVIDaren jarraipena egin ahal izateko, zuen seme-alabak COVID-ean POSITIBO edo KONTAKTU ESTUTZAT hartua bada eta horregatik konfinatu beharra badu, zuen seme alaben tutorea mezu elektronikoz abisatzeaz gain, jarraian bidaltzen dizuegun Galdetegia betetzea eskatzen dizuegu. Gure helburua, COVID kasuen jarraipena era eraginkorrago batetan egitea da informazioa zuzenean gurasoengandik jasoz.

COVID [GALDETEGIA](#)

KORRIKA TXIKIA

Hasiera: 16:45 Antonianon

Lekuko aldaketa:

1. Gipuzkoa kalean Hotel Zarauz parean (Ikastolak hemen hartuko du).
2. Aritzataldeko biribilgunea
3. Aguxeko biribilgunea

Amaiera Udaletxe plazan izango da, bertan korrikako abestia elkarrekin dantzatuko dugu.

Gogoratu korrika txikian haurren erantzukizun osoa gurasoen esku dagoela. Ez ikastetxeak ez AEK ez da bertan gertatutakoaren erantzule egingo. Beraz, haurren ardura gurasoena izango da.

[IKUSI KARTELA](#)

GALDUTAKO PATINETEAK

Azken urteotan, garajeen azaldutako edo eta jaso ez diren patineteen argazkiak bidaltzen dizkizuegu honako [ESTEKA](#) honen bitartez. Zuetako baten batena baldin bada, mesedez, idazkaritzan jakinarazi, eta datorren apirilaren 1a baino lehen jasotzea pasa zaitezke. Data horretatik aurrera, patinete hauek erretiratu egingo dira.

PATINETEAK APARKATZEA

Patineteak garajeen gordetzeko dauden aparkalekuak, kendu egin dira. Hauen ordean, idazkaritza aurrean, hesian bertan patineteak zintzilikatzekoak jarri ditugu. Aurrerantzean, ezingo dira garajeen gorde. Mesedez, ez ahaztu, patineteak zintzilikatzerakoan, kandatua erabiltzea.

**HH OHARRAK****HH4
IRTEERA**

Maila	HH4	Prezioa	8,53€
Nora	CRISTINA ENEARA	Irteera ordua	9:15 (Puntualitatea beharrezkoa da.)
Noiz	Apirilak 1, ostirala	Itzulera ordua	16:30
Aipatzekoak	<ul style="list-style-type: none">Eraman beharrezkoa: Hamaiketako eta bazkaria.		

*Martxoko erreziboarekin batera kobratuko da.



LH OHARRAK

LH5
IRTEERA UDALA

LH5C - martxoak 28-29

LH5A - Martxoak 31 - apirilak 1

Maila	LH5 (LH5A / LH5C)	Prezioa	56,14 €
Nora	UDALA	Irteera ordua	8:45
Noiz	Martxoak 28-29 LH5C Martxoak 31-1 LH5A	Itzulera ordua	16:15
Garraioa	Autobusa		
Aipatzekoak	<p>Tokia kontutan izanda, mendiko botak eta mendirako arropa aproposa eramatea komeni da.</p> <p>Bi motxila eraman behar dira, motxila txikian aurreneko egunerako gauzak, eta beste motxila edo maleta batean gaueko eta bigarren egunekoak:</p> <p>Motxila txikian:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hamaiketakoa• Lehenengo eguneko bazkaria• Ura• Aldatzeko kirol zapatilak• Eguzkitako krema• Aterki txiki bat.• Txamarra <p>Beste motxila edo maleta batean:</p> <ul style="list-style-type: none">• Anoraka.• Lozakua.• Aldatzeko arropa.• Etxeko zapatilak.• Nezeserra.• Pijama. <p>Mendiko botak jantzita</p> <p>ERAMAN BEHAR EZ DIRENAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Smart warch-ak.• Dirua eta baliodun gauzak.• Gailu musikal eta teknologikoak.		


*Martxoko erreziboarekin batera kobratuko da.



LH6 IRTEERA ARTIKUTZA (2 EGUN)

LH6A - martxoak 28-29

LH6C - Martxoak 31 - apirilak 1



Maila	LH6 (LH6 A / LH6C)	Prezioa	41,19 €
Nora	ARTIKUTZA	Irteera ordua	8:45
Noiz	Martxoak 28-29 LH6A Martxoak 31-1 LH6C	Itzulera ordua	16:15
Garraioa	Autobusa		
Aipatzekoak	<p>Tokia kontutan izanda, mendiko botak eta mendirako arropa aproposa eramatea komeni da.</p> <p>Bi motxila eraman behar dira, motxila txikian aurreneko egunerako gauzak, eta handian gaua eta bigarren egunekoak:</p> <p>Motxila txikian:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zira edo berokia.• Lehenengo eguneko hamaiketakoa, bazkaria eta ura.• Lanerako koaderno eta arkatza. <p>Motxila handian:</p> <ul style="list-style-type: none">• Lo zakua.• Aldatzeko arropa eta oinetakoak.• Eskarpinak edo errekan ibiltzeko busti daitezkeen oinetakoak.• Lotarako arropa eta nezeserra.• Etxeko zapatilak.• Linterna.• Lehenengo eguneko afaria.• Bigarren eguneko bazkaria.		

*Martxoko erreziboarekin batera kobratuko da.



DBH OHARRAK

DBH3

ORIENTAZIO AKADEMIKOA: DBHn ERABAKIAK HARTZEKO PROGRAMA

DBH 3ko ikasturtea aurrera doa eta epe motzean zuen seme-alabak hurrengo ikasturtari begira erabaki hartze prozesu batean sartzear daude. Ikastolak une horretarako hainbat jarduera jartzen ditu abian, hala nola, tutoretza saioak “Aukera egin behar dut!” txostena eta gurasoei begira hainbat hitzaldi informatibo.

Bestalde, gure ikasleekin tutoretzetan lanketa egin ahal izateko txosten bat prestatu dugu. Aurten, modu digitalean jartzen dizuegu eskuragai:

<https://sites.google.com/zarauzkoikastola.net/orientazio-akademikoa/orri-nagusia>

Norentzat: DBH 3ko gurasoentzat

Noiz: Martxoaren 30ean, asteazkena, 18:00etan

Lekua: Ikastolako Plazan

Oharra: Hitzaldia **euskaraz** izango da.

Gaiaren garrantzia kontuan izanik, zuen partaidetza espero dugu.

DBH4

OTEITZA, ATE IREKIAK (Batxilergoa)

Oteitza ezagutu nahi baduzue, martxoaren 30ean 17:00etatik 20:00etara izango duzue horretarako aukera.



DBH4

SOZIOLINGUISTIKA TAILERRAK

Udalaren hezkuntza programaren eskutik DBH4ko ikasleek martxoaren 30ean bi orduko tailerrak jasoko dituzte. Gazte askok euskararen gaia ez dute lehentasunen eta beharren artean kokatzen, beraz, gaiaren inguruan hausnarketarik ez dute egiten. Egitasmo honen bidez hausnarketa hori egitera gonbidatu nahi dira. Saio praktikoak dira, ikasleen jarrera eta portaeratan eragiteko.



DBH4 SEXUALITATEA

Martxoaren 29tik apirilaren 1era DBH4ko ikasleek "**Sexualitatea**" gaia landuko dute Harremanak taldeko kideen eskutik. Gela bakoitzak 6 orduko saioa izango du.

BESTELAKO OHARRAK

Hiztun Ekologistaren Dekalogoaren aurkezpena

Zarautz berezia da euskarari dagokionez: herri euskaldunetan handiena da (23.200 biztanle inguru gara, eta %70etik gora euskaldunak dira), turistikoki erakargarria eta zerbitzu-emailea da.

Zarautzarrak euskaraz bizi gara neurri handi batean, baina gurean ere gero eta hizkuntza gehiago hitz egiten dira, eta gero eta errealitate eleanitzagoa dugu lantokian, kalean, etxean...

Munduan 6.500 hizkuntza inguru daude, eta guztiek biziraun dezaten, hizkuntzen arteko oreka eta aukera berdintasuna bultzatu behar ditugula esaten digu hizkuntza-ekologiak, eta horretarako goera ahulenean dauden hizkuntzak sustatu behar ditugula. Gurean, euskara.

Horregatik da hain garrantzitsua euskaraz egin dezakeguna euskaraz egitea. Hori da hiztun ekologistaren lehen egitekoa.

Hizkuntzaren inguruko hainbat kontzeptu gizartean zabaltzeko eta gaiari buruz hausnarketa egiteko Hiztun Ekologistaren Dekalogoia prestatu dugu, eta idatzi honen bidez, dekalogoaren aurkezpenarako gonbita egin nahi dizugu.

Zarauzko euskaltzaleak elkartu nahi ditugu ordubeteko saio arin batean, eta zu gure artean izatea gustatuko litzaiguke:

Martxoaren 30a, 18:30, Modelo Aretoa





GURUTXURTUREKIN IRTEERA

Nora: Aitzulo - Orkatzategi - Urkulu

Noiz: Apirilaren 3an, egun pasa.

Irteera: Guria taberna parean, goizeko 9tan.

Izen ematea: Mendizabal kinkila-dendan Martxoaren 31a baino lehen.

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Maria Etxe-txiki kalea 14,
20800 Zarautz
Tlf: 943 831 752

zarautz@ikastola.eus



zarauzkoikastola.eus

OHAR OROKORRAK/ NOTIFICACIONES GENERALES

BOLETINES INFORMATIVOS

Les recordamos que todos los viernes enviamos el Boletín Informativo. **Estos boletines están siempre disponibles en la plataforma de ALEXIA.** Para ello, debéis acceder desde vuestro ordenador o teléfono móvil a la APP de Alexia. Esta información se dejará de enviar por correo electrónico a partir del 25 de marzo de 2022. Aldi berean, Ikastolako web orrian izango dituzue eskuragai.

En la página web de la Ikastola, tenemos disponibles guías explicativas acerca del uso y primeros pasos en el uso de Alexia y su app para el móvil "Alexia Familia". Pueden consultarlo en el siguiente [ENLACE](#).

ESTUDIANTES DBH4: VIAJE FIN DE CURSO

Como sabréis, los alumnos de 4º de ESO tenemos previsto acudir este año al viaje de fin de curso y ya hemos vendido bombones y ropa para conseguir algo de dinero. No obstante, queremos organizar la última pequeña acción para conseguir el dinero que nos falta. Así que, hemos organizado un mercado y podréis comprar sudaderas, bolsos, chapas y diversos tipos de postres y dulces, para este viernes, en la plaza Bertsolari, alrededor de la escultura frente a la ikastola, a partir de las 16:30 horas. ¡¡Animaos!! ¡¡Os esperamos!!

Podéis ver el cartel que hemos diseñado en el siguiente [ENLACE](#).



PAGOETA MENDI LASTERKETA

La Ikastola Salbatore Mitxelena ha vuelto a organizar la Carrera de Montaña Pagoeta tras dos años sin poder llevarlo a cabo. Este año se celebrará el 24 de abril. Para poder organizar adecuadamente este evento necesitaremos voluntarios y para ello pedimos vuestra colaboración, principalmente para el día de la carrera. Las tareas que necesitamos llevar a cabo son las que siguen: trabajos de montaje y desmontaje de la zona del polideportivo, vigilancia de los cruces de los recorridos, preparación de zonas de avituallamientos, servicio de hamaiketako, etc.

Por ello necesitamos la colaboración de trabajadores así como familias de la Ikastola así como todo aquel que quiera participar. En caso de considerarlo necesario, pueden realizarnos cualquier consulta:

Telef: Iñigo Garcia – 699 775 242
email: pagoetamendilasterketa@gmail.com

Además, también nos encontraréis en [Facebook](#) con el nombre PAGOETA MENDI LASTERKETA.

[CARTEL](#).

FORMULARIO COVID

La Ikastola quiere realizar el seguimiento de los casos COVID que se detectan en el alumnado de forma más eficiente. Para ello, os pedimos que tan pronto detectéis que vuestro/a hijo/a es POSITIVO en COVID o haya sido confinado/a por ser contacto estrecho de otro/a Positivo, cumplimentéis el formularioa que les mandamos a continuación además de como hasta ahora avisar al tutor/a a través de correo electrónico [FORMULARIO COVID](#)



KILOMETROAK 2022: TIENDA ITINERANTE

Como sabréis, este año la Ikastola Uzturpe de Ibarra se encuentra inmersa en la organización del **Kilometroak** que tiene como lema “**Irribarra**” (Sonrisa).

Desde que celebramos Kilometroak en nuestra Ikastola se han realizado algunos cambios organizativos y uno de ellos está relacionado con la venta de ropa. Se nos ha solicitado a cada Ikastola, que organicemos y promocionemos la venta de ropa en nuestro municipio. Por ello, desde la Ikastola de Zarautz tenemos previsto poner el puesto de la "Tienda Itinerante - Denda ibiltaria" durante varios días señalados a lo largo del año.

Debido a la gran afluencia de personas que se acercan a Zarautz durante la Semana Santa, hemos pensado instalar la tienda itinerante KMK el sábado 16 de abril en el Malecón de Zarautz. Pero para esto necesitamos contar con voluntarios/as que estén dispuestos/as a colaborar ese día. Si bien la idea es poner la “Tienda tiene itinerante” mañana y tarde, el horario y la duración de los turnos lo terminaremos de organizar en función del número de trabajadores/as y padres/madres que estemos dispuestos/as a colaborar.

Si estás dispuesto/a a estar en la tienda itinerante ese día, rellena el siguiente [CUESTIONARIO](#) y nos pondremos en contacto contigo para organizar los turnos.

Muchas gracias por vuestra colaboración y saquemos una “Irribarra”.

KORRIKA TXIKIA

Inicio: 16:45 Frente a los Antonianos

Cambio del testigo:

1. En la calle Gipuzkoa a la altura del Hotel Zarautz (es aquí donde lo tomará la Ikastola).
- 2ª Rotonda de Aritzbatalde
3. Rotonda de Agoues

El final será en la plaza del Ayuntamiento, donde bailaremos juntos la canción de la korrika.

Recuerda que en la korrika pequeña toda la responsabilidad de los/as niños/niñas recae en las familias. Ni el centro ni AEK se harán responsables de lo que allí ocurra. Por lo tanto, la responsabilidad de los/as niños/as será de las familias.

[VISUALIZAR EL CARTEL](#)



PATINETES EXTRAVIADOS

Mediante el siguiente [ENLACE](#), os mandamos fotos de patinetes que han sido recogidos del garaje de la Ikastola. Si alguien reconoce alguno de estos patinetes, puede recogerlo, pasando por administración antes del 1 de abril. A partir de esa fecha estos patinetes se retirarán.

APARCAMIENTO DE PATINETES

Se ha procedido a retirar las estructuras para aparcar los patinetes en el Garaje. En su lugar se han colocado unas estructuras en la verja blanca situada en la entrada peatonal a la Ikastola.

HH OHARRAK

HH4 EXCURSIÓN

Maila/ Curso	HH4	Prezioa/Precio	8,53€
Nora/ Destino	CRISTINA ENEARA	Irteera ordua/ Hora de salida	9:15 (Puntualitatea beharrezkoa da.) (Es necesaria la puntualidad)
Noiz	Apirilak 1, ostirlara 1 de Abril, viernes	Itzulera ordua Hora de llegada	16:30
Aipatzekoak/C omentarios	Cada niño/niña llevará en su mochila el almuerzo y la comida.		

* Se cobrará conjuntamente con el recibo de marzo.



LH OHARRAK

LH5
EXCURSIÓN UDALA

LH5C - 28-29 de marzo

LH5A - 31 de marzo y 1 de abril

Maila / Curso	LH5 (LH5A / LH5C)	Prezioa/Precio	56,14€
Nora / A donde:	UDALA	Irteera Ordua /Hora salida:	8:45
Noiz / Cuándo:	LH5C - 28-29 de marzo LH5A - 31 de marzo y 1 de abril	Itzulera ordua /Hora llegada	16:15
Garraioa / Transporte	Autobús		
Aipatzekoak / / A tener en cuenta:	<p>Teniendo en cuenta el lugar, conviene llevar botas de monte y ropa ideal para la montaña. Hay que llevar dos mochilas, en la mochila pequeña las cosas para el primer día, y en la otra mochila o maleta las de la noche y las del segundo día:</p> <p>Mochila pequeña:</p> <ul style="list-style-type: none">● Almuerzo● La comida para el primer día● Agua● Zapatillas de deporte● Crema solar● Un paraguas pequeño.● Anorak <p>En la otra mochila o maleta:</p> <ul style="list-style-type: none">● Saco de dormir.● Ropa para cambiarse.● Ropa de dormir● Neceser.● Zapatillas de casa. <p>Deberán llevar puestas botas de monte NO SE DEBE LLEVAR:</p> <ul style="list-style-type: none">● Smart watch.● Dinero o cosas de valor.● Aparatos musicales y tecnológicos.		

* Se cobrará conjuntamente con el recibo de marzo.



LH6 EXCURSIÓN 2 DÍAS ARTIKUTZA

LH6A - 28-29 de marzo

LH6C - 31 de marzo y 1 de abril



Maila / Curso	LH6 (LH6A / LH6C)	Prezioa/Precio	41,19 €
Nora / A donde:	ARTIKUTZA	Irteera Ordua /Hora salida:	8:45
Noiz / Cuándo:	LH6A - 28-29 de marzo LH6C - 31 de marzo y 1 de abril	Itzulera ordua /Hora llegada	16:15
Garraioa / Transporte	Autobús		
Aipatzekoak // A tener en cuenta:	Teniendo en cuenta el lugar, conviene llevar botas de monte y ropa ideal para la montaña. Hay que llevar dos mochilas, en la mochila pequeña las cosas para el primer día, y en la grande las de la noche y las del segundo día: Mochila pequeña: <ul style="list-style-type: none">● Impermeable o abrigo.● Almuerzo, comida y agua del primer día.● Cuaderno y lápiz de trabajo. Mochila grande: <ul style="list-style-type: none">● Saco de dormir.● Ropa y calzado para cambiarse.● Escarpines o calzado que se puede mojar para andar por el río.● Ropa de dormir y neceser.● Zapatillas de casa.● Linterna.● Cena del primer día.● Comida del segundo día.		

* Se cobrará conjuntamente con el recibo de marzo.

**DBH OHARRAK****DBH3****ORIENTACIÓN ACADÉMICA: PROGRAMA PARA LA TOMA DE DECISIONES EN LA ESO**

El 3º curso de la ESO va transcurriendo y vuestros hijos e hijas están a punto de comenzar el proceso de toma de decisiones de cara a los estudios que realizarán el próximo curso. La Ikastola pondrá en marcha distintas actividades encaminadas a ayudar en esa toma de decisiones, tales como sesiones de tutoría, el dossier "¡Tengo que elegir!", charlas informativas para madres y padres, ...

Por otro lado, solemos preparar un **dossier** informativo para trabajarlo con el alumnado en las sesiones de tutoría. Este año, os lo facilitamos en formato digital.

<https://sites.google.com/zarauzkoikastola.net/orientazio-akademikoa/orri-nagusia>

Dirigido a: familias de 3º de la ESO

Día: 30 de marzo, miércoles

Hora: 18:00 h.

Lugar: En la Plaza de la Ikastola

Nota: tanto la ponencia como la proyección serán en euskara. Para aquellos/as que no podáis seguir la charla en euskara habrá traducción simultánea.

DBH4**OTEITZA, JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS (Bachiller)**

Si queréis conocer Oteitza, el 30 de marzo podréis hacerlo de 17:00 a 20:00 horas.

DBH4**TALLERES DE SOCIOLINGÜÍSTICA**

De la mano del programa educativo del Ayuntamiento los/as alumnos/as de 4º de la ESO recibirán el 30 de marzo talleres de dos horas. Muchos jóvenes no sitúan el tema del euskera entre sus prioridades y necesidades, por lo que no reflexionan sobre el tema. Con este proyecto se pretende invitar a esta reflexión. Son sesiones prácticas para influir en las actitudes y comportamientos del alumnado.



DBH4 SEXUALIDAD

Del 29 de marzo al 1 de abril los/as alumnos/as de 4º de la ESO trabajarán el tema de la **sexualidad** de la mano de los miembros de Harremanak. Cada aula tendrá una sesión de 6 horas.

BESTELAKO OHARRAK

Hiztun Ekologistaren Dekalogoaren aurkezpena

Zarautz es especial en cuanto al euskera: es el pueblo euskaldún más grande (somos unos 23.200 habitantes y más del 70% son euskaldunes), es turístico atractivo y prestador de servicios.

Los zarautzarras vivimos en gran medida en euskera, pero también en nosotros cada vez se hablan más idiomas, y cada vez tenemos una realidad más multilingüe en el trabajo, en la calle, en casa.

La ecología lingüística nos dice que hay unas 6.500 lenguas en el mundo y que para que todas puedan sobrevivir tenemos que promover el equilibrio entre las lenguas y la igualdad de oportunidades, y que para ello debemos fomentar las lenguas más desfavorecidas. En Gurea, el euskera.

Por eso es tan importante que todo lo que podamos hacer, lo realicemos en euskera. Esa es la primera misión del hablante ecologista.

Con este escrito se ha preparado un Decálogo del Diccionario Ecologista para divulgar en la sociedad diversos conceptos lingüísticos y reflexionar sobre el tema, y queremos invitarle a la presentación del decálogo.

Queremos juntar a los euskaltzales de Zarautz en una sesión amena de una hora, y nos gustaría que estuvieras entre nosotros. La sesión se realizará el 30 de marzo, a las 18:30, en "Zine Modelo".





SALIDA GURUTXURTU

Destino: Aitzulo - Orkatategi - Urkulu

Cuándo: 3 de abril, a pasar el día.

Salida: frente al bar Guria, a las 9 de la mañana.

Inscripción: tienda Mendizabal antes del 31 de marzo.

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Maria Etxe-txiki kalea 14,
20800 Zarautz
Tif: 943 831 752

zarautz@ikastola.eus



zarauzkoikastola.eus